



OÑATIKO UDALA

Telefona: 78 04 11

Fax: 78 30 69

20560 OÑATI

HERRIKO IKASTETXEEI DIRULAGUNTZAK EMATEA ARAUTUKO DUEN ORDENANTZA.

1.- Oñatiko Udalak, herriko haurren heziketan lagungarri izan dadin, bertako ikastetxeen jardueran lagundu eta arlo akademikoaz kanpoko aktibitateak sustatzeko borondatea du.

2.- Hori gauzatu ahal izateko, dirulaguntzak emateko irizpideak eta horiek arautzen dituen Araudia ezarriko du, Udalaren diru-baliabideek ahalbidetzen duten heinean.

3.- Toki Erregimen Oinarriari buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen arabera, Toki Erakundearen Erregimen Juridiko eta Funtzionamenduaren Araudi Organikoari buruzko azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren arabera, Elkarreei buruzko otsailaren 12ko 3/1988 Legearen arabera eta gainerako xedapenen arabera aurkezten da, ikastetxeen jarduera ez akademikoetarako dirulaguntzak emateko araudia.

1. KAPITULUA

IZAERA OROKORREKO XEDAPENAK

1. artikulua. **Kontzeptua**

Heziketa arloaren sustapenean Udalek dituzten eskumenen barruan, eta beti ere urteko aurrekontuan jarritako diru kopuruaren arabera, ondorengo ekimenei dirulaguntzak ematea izango du helburutzat:

1) Ikastetxeek, ikasleek edo herriko eskola-komunitateko guraso elkarrekin egindako hezkuntza, kultura eta kirol izaerako jarduerak; hauek guztiak, aurrez Udalarari aurkeztuta eta gizarte ikuspegitik interesgarritzat jotzen baditu lagundu ditzake diruz. Honen barruan sartzen dira udal kirol instalazioen erabilerrazgarritako gastuak, ikastetxe bakoitzari laguntza gisa zenbatuko zaizkionak.

2) Eskola komunitatean euskararen erabilera sustatu edo bultzatzen laguntzeko jarduerak.

3) Ikasleen aisialdirako programak.

4) **Ez dira subentzionagarritzat hartuko**, azpiegiturarekin, ondasun higigarri edo higiezinekin edo izaera amortizagarria dutenekin zerikusia duten gaiak.

5) Hezkuntza batzordeak, araudi honetan finkatzen diren irizpideei eta prozedurari jarraituz kalkulatu du ikastetxe bakoitzari dagokion dirulaguntza, **beti ere gehienezko dirulaguntza gisa.**

2. artikulua. XEDEA

Araudi honen helburua, Oñatiko udalerrian irakaskuntza munduari lotutako dirulaguntzak emateko irizpideak eta prozedura finkatzea da.

3. artikulua

Dirulaguntza emate horrek, borondatezko eta behin behineko izaera du eta ezin izango da aurrekarizat hartu aurrerantzean.

4. artikulua

Emandako dirulaguntza, beste erakunde pribatu edo publikoek emandakoak kontutan hartuta, ezin izango da jasotzaileak burututako jardueraren kostoa baino handiagoa izan.

2. KAPITULUA

ESKATZAILEAK

5.- artikulua

Ondorengoek eskatu ahal izango dituzte dirulaguntzak:

- A) Udalerrian helbideratuta, irabaz asmorik gabeko ikastetxeek, beti ere 3tik 16 urtera arteko irakaskuntzari dagokionean.
- B) Udalerrian helbideratuta, aurrean aipatutako ikastetxeei lotutako Guraso Elkarteei, irabaz asmorik gabe behin behineko izaera duten jardueak antolatzeko.

3. KAPITULUA

PROZEDURA

6. artikulua

Urteroko aurrekontuan Hezkuntza Batzordeak, ondorengo bi ataletan banatuta, dirulaguntzak emateko diru kopurua jarriko du:

- a) Ikastetxeei emango zaiena.
- b) Ikasleen guraso elkarteei emango zaiena.

7. artikulua

Ikastetxeek eta Guraso elkarteek, euren jardueretarako dirulaguntzak eskatzeko epea, irailaren 15etik urriaren 30era izango da.

Urteko plangintzaz kanpo, halabeharrez eta salbuespen gisa, ekintza puntualetarako dirueskea egin ahal izango da eta Hezkuntza Batzordearen esku geratzen da onarpena; beti ere, ospakizun-eguna baino hilabete lehenago aurkeztu beharko zaio Udalari eskaria.

8. artikulua

Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko agiriak:

a).- Legezko ordezkariak sinatutako eskabidea.

b) Eskabidearekin batera aurkeztu beharrekoak:

1).- Jarduera zehatzetarako eskabideetan, programatutako egitasmoa. Guztiaren helburua zein den, diru sarrera eta gastuen aurreikuspena eta partaide posibleen kopurua, jarduera non eta noiz gauzatuko den...

2).- Urteko programetarako eskabideetan:

- ❖ Diru sarreraren eta gastuen aurrekontu banakaturakoa.
- ❖ Aktibitate-programa.
- ❖ Eskatzailearen baliabideak eta azpiegitura.
- ❖ Jarduera edo programa beretsurako beste administrazioek edo erakunde pribatuek emandako dirulaguntzen diru sarrerak jaso beharko dira eskabidean. Horrez gain, programa edo jarduera garatzeagatik lorturiko berezko diru-sarrerak ere kontuan hartu beharko dira.

c) Bai urteko programaketan eta bai unean-uneko programetan, ez dira gastutzat hartuko inbertsioak, eta azpiegitura; era berean, elkartekideei edo guraso zein familiakoei jardueretan laguntzeagatik emandako edozein dieta edo sari ere ez dira kontuan hartuko.

9. artikulua

Eskaria egin duenak, proiektua osatu gabe edo behar beste zehaztu gabe aurkeztu badu, 15 eguneko epea emango zaio akatsak zuzentzeko. Epe hori igarotzean zuzenketa egin ez bada, eskaera artxibatuta geratuko da zuzenean.

10. artikulua

Aurreko artikuluan aipaturiko agiri guztiak udaletxeko Erregistroan aurkeztuko dira.

4. KAPITULUA

DIRULAGUNTZAK BANATZEKO IRIZPIDEAK

11. artikulua

- a) IKASLEEN kontzeptuan: Ikastetxe bakoitzak, Lehen eta Bigarren Hezkuntzan duen ikasle kopurua hartuko da kontuan, hau da 3-16 urte bitarteko ikasleei dagokiena.
- b) EKINTZA PROGRAMAREN kontzeptuan: Eskola bakoitzaren kalkulua egiteko irizpide gisa, Lehen etapa eta DBHri zuzendutako aktibitateak lagunduko dira diruz.
Urte horretan banatzeko aurrikusitako diru kopurua, etapa horietako ikasleen kopurua zein aktibitatearen interesa baloratuz, ikastetxeek jasoko duten kopurua aterako zaigu.
- c) Hezkuntza jarduerako lan hizkuntza euskaraz izatearen garrantzia begibistakoa den bezalaxe da garrantzitsua, ikastetxe bakoitzak euskararen erabilera sustatzeko programak egitea. Horregatik, hizkuntza gaitasunari gagozkiola, arazoak edo gabeziak dituzten haurrei laguntzeko saioak edo eskolaz kanpo euskaraz egitea bultzatzeko programak sarituko ditu Udalak. Programen interesa eta aurrekontua aztertuz finkatuko dira dirulaguntza horiek.
- d) Herriko haurren heziketa eta hizkuntza normalizazioa lotuta doazenez, eta kirolgintza euskalduntzeko Udaleko Kirola eta Euskara batzordeak egiten ari garen lanarekin uztartuz, ESKOLA KIROLA programan hurrekin diharduten entrenatzaile/monitoreak euskaldunak izan daitezen garantizatzeko, beste dirulaguntza bat jaso lezake ikastetxe bakoitzak, entrenatzaile horien ahalegina bultzatu eta saritzeko erabiliko dutena.

12. artikulua

Diru banaketa hori, gehieneko irizpide gisa hartuta izango da, benetan eskatzaileak jaso dezakeen dirutza txikiagoa izan baitaiteke.

13. artikulua

Udalaren Hezkuntza Batzordeak aztertuko ditu dirulaguntza-eskaerak eta berak aukeratuko ditu ikastetxe bakoitzak proposatutakoetatik diruz lagunduko dituenak, lehentasunezkoak zeintzuk ikusten dituen eta zenbatean lagunduko dituen erabakiz; horren arabera aurrikusiko ditu laguntza horiek urteko bere aurrekontuan.

14. artikulua

Ikastetxetako Guraso elkarteentzat ere, urtero aurrikusiko du Hezkuntza batzordeak dirutza bat eta Elkarte horien eskabideak aztertu ondoren, honako irizpideak erabiliko ditu dirulaguntzak banatzeko:

- 1.- Gurasoak hezitzeko aktibitateak.
- 2.- Ikasleei zuzenduta, heziketa-programen osagarri izan daitezen aktibitateak antolatzea.
- 3.- Euskararen erabilera bultzatzeko antolatutako aktibitateak.
- 4.- Antolatutako aktibitateek, herriari edo auzoari egin diezioketen ekarpena.

15. artikulua

Proiektu edo aktibitate puntualen dirulaguntzen eskabideei dagokienez, urtean zehar jasotzen badira, Hezkuntza Batzordean aztertu ondoren iritsiko dira proposamen zehatzak Gobernu Batzordera bertan azken erabakia hartzeko

16. artikulua

Urteko lehen hiruhilekoaren amaieran erabakiko du Gobernu Batzordeak urte horretan banatu beharreko dirulaguntza guztia; onarpenaren ondotik, diru kopuruaren %60 ordainduko zaie eskaera egin dutenei eta gainontzeko %40 berriz, gastuak justifikatu ondoren.

17. artikulua

Dirulaguntzak ematerakoan honako irizpideetan oinarritu da Batzordea:

- 1.- Programa edo jarduerak udalerriri egiten dion ekarpena (heziketa, gizarte edo kultura ikuspegitik duen "errentagarritasuna").
- 2.- Eskatzailearen ahalegina, antolakuntzan, eta diru baliabideak lortzen.
- 3.- Jardueraren zehaztasun maila edo errealismoa, bai edukiari bai helburu eta aurrekontuari dagokionez.
- 4.- Hizkuntza normalizazioan bultzatzaile izatea.
- 5.- Jardueraren kalitatea, orijinaltasuna, eta egokiera.
- 6.- Aurkeztutako proiektuen berrikuntza.
- 7.- Elkarrearen beraren heziketa-proiektuarekiko osagarritasuna.
- 8.-Eskatutako dirulaguntza eta elkarrearen bitartekoen arteko proportzioa.

5. KAPITULUA

ONURADUNEN BETEBEHARRAK

18. artikulua

- a) Dirulaguntzaren arrazoi den jarduera gauzatzea.
- b) Jarduera burutu dela egiaztatzea, ezarri zaizkion betebeharrak eta baldintzak barne.

- c) Emandako dirulaguntza guztien inguruan Udalak egin lezakeen egiaztapen-lana onartzea.
- d) Hala balitz, beste edozein Administrazio edo erakunde publiko zein pribatu batetatik helburu bererako dirulaguntza jaso balu, horren berri ematea Udalari.

19. artikulua

Diruz lagundutako aktibitateak, urte horretako abenduaren 31 aurretik burutu beharko dira.

20. artikulua

Emandako dirulaguntza guztiak, euskararen normalizazioaren alde bere garaian Udalarekin eta beste elkarte batzuekin izenpetutako hizkuntz konpromisoarekin lotuta daude.

21. artikulua

Diruz lagundutako jarduera gauzatzean idatzizko propaganda edo idatzirik aterako balitz, Udalaren Hezkuntza sailaren laguntza izan duela adieraziko da bertan, eta horretarako, **aurrez** dokumentazio hori Hezkuntza Batzordeari aurkeztu beharko zaio.

22. artikulua

Ez da onartuko dirulaguntzen helburuak aldatzea.

23. artikulua

Jarduera baterako dirueskea aurkezteak, esan nahi du Araudi hau ezagutzen dela eta onartu egiten dela bertan dioena.

24. artikulua

Araudi honetan jasotako betebeharrak ez betetzeak, dirulaguntza kentzea ekar lezake.

6. KAPITULUA

JUSTIFIKAZIOA ETA KOBRANTZA

25. artikulua

Araudi honek dioenaren arabera dirulaguntza jaso ahal izateko ezinbestekoa izango da jarduera gauzatua izatea eta honako dokumentazioa aurkeztea:

- 1) Diruz lagundutako jarduerari buruzko txostena (memoria).
- 2) Diru sarrera eta gastuen balantzea. Hau da, hasieran aurkeztutako aurrekontua, izandako gastuak eta dagozkien fakturak eta azkenik, jarduera bererako bestelako Administrazio edo erakunde pribatu zein publikok edo gurasoek emandako dirulaguntzak. Gainera, programa edo jarduera horrek emandako diru sarrerak agertu beharko dira.
- 3) Jarduerak sortutako dokumentazio, foileto eta abarren ale bana aurkeztu beharko da.
- 4) Diruz lagundutako jardueraren helburuak zenbateraino bete diren agertu.

26. artikulua

Aurkeztu beharreko fakturei dagokienez;

- 1) Jatorrizkoak izango dira edo bestela Udalean konpultsatuak.
- 2) Dirulaguntza eman den urteko data izan behar dute guztiek.
- 3) Jasotzailearen Nortasun Agiria edo lizentzia fiskala agertu behar dute.
- 4) Eskaera egin zen uneko aurrekontuari mugatuta egon behar dira.

27. artikulua

Honela egingo da, aurrez urtealdirako Udalaren aurrekontuan jasotako dirutzaren banaketa:

Hezkuntza batzordearen proposamenez, Gobernu batzordeak banaketa egitea erabaki ondoren, dirulaguntzaren %60 ordainduko du Udalak, eta gainontzeko %40, egindako gastua justifikatu ondoren. **Bigarren zati hori jaso ahal izateko, faktura horiek abenduaren 1etik 20ra bitartean aurkeztu beharko dira.**

28. artikulua

Ondorengo gora-beheretako bat eman den kasuan, Oñatiko Udalak, emandako dirulaguntza eta harek sortutako interesak itzultzea eska dezake:

- a) Aurkeztutako proiektuan aurrikusita zeuden jarduerak ez gauzatu izana.
- b) Jarritako baldintzarik bete gabe dirulaguntza lortu denean.
- c) Egindako gastua emandako dirulaguntza baino txikiagoa izan denean edo eta beste Administrazio edo erakunde batzutatik dirua lortu izanagatik.
- d) Emandako dirulaguntzak zuen helburua bete ez denean.
- e) Publizitateko materialean Oñatiko Udalaren babesa aipatzen ez denean.
- f) Behar den dokumentazioa epez kanpo aurkeztu denean.

29. artikulua

Itzuli beharreko diruek, eskubide publikoko izaera izango dute eta premiamenduzko prozedura erabiliko da kobratzeko.

30. artikulua

Administrazio arau-haustetzat jotzen dira ondorengo jokabideak, doloa, errua edo arduragabekeria ematen den kasutan:

- a) Dirulaguntza, hura emateko jarritako baldintzak faltseatuz edo informazioa ezkutatuz lortzea.
- b) Jasotako dirulaguntza, hasierako helburuetarako ez erabiltzea; behinik behin esijitu gabe itzuli ez den kasuan.
- c) Ikastetxe onuradunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, dirulaguntza jasotzearen ondorioz bere gain hartutako betebeharrak ez betetzea.
- d) Eskuratutako dirua zertan erabili den ez egiaztatzea.

Hemen aipatutako arau hausteak egin dituzten eskatzaileak, horien erantzule izango dira.

31. artikulua

Oñatiko Udalaren Hezkuntza batzordeak, diruz lagundutako jardueren jarraipen egingo du. Alde horretatik, edozein unetan eska ditzake behar dituen azalpenak.

Lehen xedapen gehigarria.

2002ko irailaren 1ean jarriko da indarrean Araudi hau.

Bigarren xedapen gehigarria.

Araudi honek, aldatu arteko indarraldia izango du.